



AIARAKO UDALAK 2022ko IRAILAREN 12an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jn.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jn.

Montse Angulo Solloa and.

José Antonio Bartolomé Pesquera jn.

Susana Martín Benavides and.

Itxaso Gorbeña Allende and.

Unai Campo Arenaza jn.

Karmele Población Martínez and.

Marian Mendiguren Mendibil and.

Koldo Mendioroz Goldaraz jn.

Iratxe Parro Uzquiano and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita biko irailaren hamabian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa telematikoki bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos and.

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2022ko uztailaren 21ean eginiko ohiko osoko bilkuraren akta

Ez da horren inguruko beste adierazpenik egin eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- EH-Bildu eta Aiara Batuz udal-taldeek aurkeztutako mozioa, eukalipto-landaketak arautzeari buruzkoa

Udalbatzari jakinarazi zaio gai horri dagokion Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordearen 2022ko irailaren 13ko aldeko Irizpena.

EH-Bildu eta Aiara Batuz udal-taldeek honako mozio hau aurkeztu dute, bilkura honetan eztabaidatu eta bozkatzeko:

“Pinuaren banda marroiaren gaitza dela-eta, pinuekin birpopulatu diren eremu handietan zuhaitz guztiak mozten ari dira (arraseko mozqueta) epe laburrean, eta eremu horien zati handi batean eukaliptoak landatzen ari dira.

Izan ere, zuhaitz horren hedadura handi eta etenezinak aldaketa handia ekarri du Aiarako iparraldeko erdiaren paisaian, egurrezko produkzio intentsiboko mendiak dauden eremuan.



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Aiaran bakarrik, azken 10 urte hauetan eukaliptoak bete duen azalera 13 bider handitu da, 523 hektarea hartuz. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari¹ agindu ostean, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak egin duten txostenaren arabera, eukalipto-sail zabalek biodibertsitatearen galera larria, mendietako malda nabarmenetan erosio-prozesu larriak eta erreka eta ibaiadarren lehorketa ekartzen dute.

Eukaliptoak 15-18 urtero mozten dira arraseko mozketaren bidez, mendi-hegalak soilduta eta babesik gabe utziz.

Eukaliptoak landatzeak mendi horietako jabeei onura ekonomiko handia ekartzen die, baina ondasun ukiezinak pobretzearen kostura, ezin direnak dirutan adierazi, naturak sortzen dituenak eta guztioi on egiten digutenak: biodibertsitatea, paisaia, lurzorua emankortasuna, uraren zikloaren erregulazioa, etab. Ustez eukaliptoak bahitzen duen karbonoa ez da hainbeste haren egurraren erabilerak aztertzen baditugu: erabilera bakarreko papera, paper-zapiak, etab. Haren bizi-zikloak ez du aldaketa klimatikoari aurre egiten laguntzen. Hortaz, aproposena Aiara eukaliptoaren hazkuntza mugatzea eta antolatzea da, herritar guztien mesederako.

Bizkaian eta Gipuzkoan, non klima eta orografia antzekoak diren, neurriak hartzen ari dira sail horiek antolatzeko. Bizkaiaren kasuan, eukaliptoak landatzea debekatu da 2025eko abenduaren 21era arte, epe horretan sailak antolatzeko. Gipuzkoaren kasuan, berriz, basoko espezie guztiak moztea debekatu da, landatu zirenetik 25 urte igaro arte.

Arabian, ordea, egun ez dago inolako antolamendurik. Hori dela eta, bat egon arte espezie hedatzen jarraitzea ahal den neurrian saihesteko, Udaleko A.B. eta EH Bildu taldeek honako hau eskatzen dute:

- 1. Udaleko alderdi politikoen adostasunarekin, atzerapena izapidetzen hasteko, udalerrian eukalipto-sail berriak ekiditen dituzten araudia egite aldera, Arabako Foru Aldundia, basoen administrazio-eskuduna den neurrian, Arabian eukaliptoaren erabilera erregulatzen duen araudia ezartzen duen arte.*
- 2. Luzapen hori behin betiko onestearen zain dagoen Aiarako HAPOan jasotzeko.*
- 3. AFARI lurraldeko mendietan eukalipto-landaketak arau ditzan eskatzeko.*
- 4. AFA, ABN, Aiarako Kuadrilla eta Aiarako ABNi Aiarako Udalak hartutako erabakia jakinarazteko”.*

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hitza hartu du azaltzeko jakin nahi dutela ea Aldundiak erantzun duen, eskumenen inguruan geratu ziren zalantzak argitzeko, ea eskatzen dena posiblea den ala ez.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Aldundia galdetzean egon dela, baina nola antolatuta dagoen ikusita, ulertzen dutela eskumena foruarena dela, nahiz eta hori dioen txosten ofizialik ez egon. Hortaz, ez da zalantza hori argitu.



Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) azaldu du berak dagoeneko planteatu zuela Aldunditik ez zela erantzunik jasoko eta gaia mahaiaren gainean utzi ote zitekeeneta erantzuna iritsi arte, erabakigarria delako. EAJri galdetu dio ea planteatu duen eskatzea posible den, legearen ikuspegitik gauza daitekeen edo mozioaren aurka bozkatuko duten.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez dutela arazorik gaia mahai gainean uzteko, horren gaineko txosten juridikoa eskatu eta erantzun ofiziala jaso arte itxaron daitekeela. Bi gauza izan behar dira kontuan, bata eskumenak eta bestea HAPOan arautu daitekeen, errekurtsioa aurkeztu delako antolamendu planetan arautzen saiatu diren erabakien aurrean.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) hitza hartu du azaltzeko Aldundiko teknikari batekin hitz egin zuela eta berak esan ziola beste lekuetan luzatzeko erabaki horiek hartzen ari zirela. Erabakiak hartu behar dira, dio, hori egin ezean, beranduegi izango baita. Klima-aldaketaren kalteak saihesteko erabakiak hartu behar dira.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du haiek argi dutela tamaina gorabehera, hartu behar diren erabakiak hartuko dituztela, baina udalaren eskumenak direnak bakarrik, eta haiek uste dute eukalipto-landaketan arauaren luzapena ez dela udalaren eskumena, foruarena baizik, eta beste udaletan egin diren horrelako erabakiei errekurtsioa jarri zaiela. Erantsi du ez dakiela ohartzen diren Aiarako udalerrian eukaliptoak betetzen duen ehunekoak. Basomasaren % 7 da, eta udalerraren azalera osoaren % 3. Gainera, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi duen arabera, gaur egun eukalipto landatzeko joera behera egiten ari da, pinuaren arazoa konponduz doalako.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) berriz hartu du hitza esateko agian datu horiek faltsuak direla. Haiei, dio, esan diete urte batzuk barru ez dela pinurik egongo. Gehitu du ez dagoela argi luzatzeko erabakia ez dagokiela udalei, Aldundiko teknikariak adierazi zuen udalaren erabakia den ikusi beharko dela. Hala ere, gero eta udal ari badira luzapen hori egiten pentsatzen, agian, Aldundiak erabaki bat hartuko du, eta gaia arautu.

Ez denez iruzkin gehiagorik egin, gaia bozkatu da, honako emaitza honekin:

ALDEKO BOTOAK: 4 (3 EH BILDU + 1 AIARA BATUZ).

AURKAKO BOTOAK: 7 EAJ

Hortaz, mozioa ezetsi da.

3.- Onestea, bidezkoa bada, 2021. urteko kontu orokorra

Udalbatzari jakinarazi zaio gai horri dagokion Udalaren Kontuen Batzorde Bereziak eta Ogasun, Funtzio Publiko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorraren 2022ko ekainaren 14ko aldeko Irizpena. Bertan adierazten da jendaurreko epean zehar interesdunek ez dutela inolako idazkirik aurkeztu 2021. kontu orokorraren gainean.

Ez denez iruzkin gehiagorik egin, gaia bozkatu da, eta zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,



IKUSI DA.- 2021 ekitaldirako Aiarako Udalaren kontu orokorra, horri erantsita dauden eta espedientean jasota dauden dokumentu guztiekin, indarrean dagoen legediaren arabera.

IKUSI DA.- Udalaren Kontuen Batzorde Bereziak eta Ogasun, Funtzio Publiko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorrak 2022ko ekainaren 14an 2021 ekitaldiari dagokion Aiarako Udalaren kontu orokorraren aldeko txostena egin zuela. Horretaz gain, hamabost eguneko epean jendaurrean jartzea erabaki zen, iragarkia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, epe horretan zehar interesdunek beharrezkoak irizten dituzten erreklamazio, eragozpen edo iruzkinak aurkez ditzaten.

Kontu orokorra 2022ko ekainaren 22ko 73 zenbakiko ALHAOn argitaratu da.

IKUSI DA.- Idazkaritza kontu-hartzaitzaren egiaztagiriarekin bat etorritz, jendaurrean jartzeko epean interesdunek ez dutela inolako idazkirik aurkeztu 2021. urterako kontu orokorrari buruz.

AINTZAT HARTU DA.- Udalaren Kontuen Batzorde Berezia eta Ogasun, Funtzio Publiko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorraren txostena, eta Toki Araubidearen oinarriak arautzeko 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Osoko Bilkurak, udalbatza osatzen duten zinegotziek aho batez onetsi dutela, **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Onestea 2021 ekitaldiari dagokion Aiarako Udalaren kontu orokorra.

BIGARRENA.- Onetsitako kontu orokorra, osatzen duten dokumentu guztiekin batera, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzea, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 63.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

4.- Onestea, bidezkoa bada, bilkurak 8/2022 kreditu gehigarria

Ondoren, Udalbatzari kontu ematen zaio Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikulua bidez, alkate udalburuak, behar bezala justifikatutako premiazko arrazoiengatik, gai-zerrendan alde zuzenetik dagokion informazio batzordean jakinarazi ez dituen gaiak sar ditzake. Hala ere, kasu horretan, ezin izango da gaiari buruzko erabakirik hartu, Osoko Bilkurak gai-zerrendan sartzea berresten ez badu.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da. Ez da iruzkinik egin eta bozkatu da, eta aho batez onetsi da Osoko Bilkura honen gai-zerrendan sartzea.

Gaiari buruzko erabaki-proposamenaren kontu eman da.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du azaltzeko lizitazioa hutsik geratu zela, eta ondorioz arkitekto bati proiektuaren prezioak eguneratzea eskatu behar izan zitzaioela. Orain aurrekontu berria dago, eta partida handitu behar da, lizitazioan berriz jartzeko kreditu nahikoa izan dadin.



Iratxe Parro Uzquiario zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hitza hartu du galdetzeko zer gertatu den puntu honekin eta hurrengoarekin, ea batzordeetan sartzea ahaztu zitzaion edo zein izan den arazoa bilkuran sartzeko lehenago eztabaidatu gabe.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Aldundiarekin hitz egin duela jakiteko nola egin aurrera lizitazioaren espedientearekin.

Idazkari andreak hitza hartu du azaltzeko oporraldia dela-eta ez duela aurrekontu berria ikusi pasa den astera arte, eta ez zuela Arabako Aldundiarekin hitz egin jakiteko beharrezkoa zen haien oniritzia aurrekontu berriari aurrera egiteko. Sail egokikoek esan ziguten haiek ez zutela inolako oniritzirik eman behar, eta aurrera egin genezakeela lizitazioarekin.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du galdetzeko arkitektoa aldatu den, eta ea hori jarduketa arrunta den.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez zegoela beste irtenbiderik, proiektua idatzi zuenak ez zuelako aurrekontuan aldaketa egin nahi, lan asko zuelako.

Idazkari andreak hitza hartu du eta erantzun du lehenengo aukera proiektua idatzi zuenari eskatzea zela, baina berak ezetz esan zuenez, aurrekontu gehiago eskatu behar zitzaizkien beste arkitekto batzuei, ezin zelako espedientea geldirik utzi. Aurrekontu nahiko eskatu ziren, eta profesional batzuek ezin izan zuten enkargua hartu, oso lanpetuta zeudelako.

Ez denez iruzkin gehiagorik egin, gaia bozkatu da, eta zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2021. urterako aurrekontua likidatzeak diruzaintza-geldikinaren zati bat gastu orokorretarako erabiltzeko ekarri duen beharra, 2022ko Udalaren aurrekontuan adieraziko diren gastuen partidei kreditu handiagoak emateko eta 2022rako gastuen aurrekontuan existitzen ez diren partide berriak sortzeko, 2023ra atzera ezin diren gastuak asetzeko.

IKUSI DA.- Organo kontu-hartzaileak egindako txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeagatik, Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan jasotakoarekin bat etorritz (17/2014 Foru Arauak aldatua), osoko bilkurari aurkeztuko zaio, kreditu aldaketarekin, ezagut dezan.

AINTZAT HARTU DA.- Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan xedatutakoa eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa.

Aiarako Udaleko osoko bilkurak, aho batez, ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Ondoren zerrendatzen diren aurrekontu-aplikazioetan kreditu gehigarria onestea.



PARTIDA	IZENA	ZENBATEKO A/€
333.622.000	LUIAONDOKO ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA MOLDATZEA	170.055,74 €

ZENBATEKOA, GUZTIRA: 170.055,74 €

Zenbateko hori ondoren zerrendatzen diren baliabideek finantzatzen dute, hortaz, espedientea orekatuta geratzen da, defizita sortu gabe:

Handitu beharreko sarreren partidak edo erabili beharreko diruzaintza-geldikina:

<u>Sarreren Partida</u>	<u>Izena</u>	<u>Zenbatekoa/€</u>
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA	170.055,74 €
	GUZTIRA	170.055,74 €

Onetsitako kreditu gehigarrien zenbatekoa guztira horiek finantzatzen dituzten sarreren zenbateko bera da.

Bigarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea eta 15 egun baliodunetan zehar espedientea jendaurrean erakustea, pertsona interesdunek beharrezkotzat irizten dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Hirugarrena.- Erabaki hau behin betikotzat jotzea erreklamaziorik egon ezean. Erreklamazioak badaude, erabaki berria hartu beharko da horiek onetsi edo ezeztuz.

5.- Bilkurako erabakia onesteko proposamena, bidezkoa bada, “Luiaondoko erabilera anitzeko gunea moldatzea” proiektuaren aurrekontua eguneratzeko

Ondoren, Udaltzari kontu ematen zaio Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikulua bidez, alkate udalburuak, behar bezala justifikatutako premiazko arrazoiengatik, gai-zerrendan alde aurretik dagokion informazio batzordean jakinarazi ez dituen gaiak sar ditzake. Hala ere, kasu horretan, ezin izango da gaiari buruzko erabakirik hartu, Osoko Bilkurak gai-zerrendan sartzea berresten ez badu.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da. Ez da iruzkinik egin eta bozkatu da, eta aho batez onetsi da Osoko Bilkura honen gai-zerrendan sartzea.



Gaiari buruzko erabaki-proposamenaren kontu eman da.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du adierazteko ez dakiela puntu honi edo aurrekoari dagokion, baina ondo ulertu badu, aurtan geldikinaren bostehun mila euro inguru erabili direla.

Idazkari andreak hitza hartu du erantzuteko bilkura honetan onetsitako kreditu gehigarria barne, geldikinaren 520.000 euro inguru gastatu direla.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) berriz hitza hartu du azaltzeko bilkuraren bidez eta alkatetzaren dekretuen bidez onetsitako kreditu gehigarriak daudela. Horrela, alkateak geldikina erabiltzea erabakitzen duela, bilkurak esku hartu gabe.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du alkateak, legeak ezartzen duenaren arabera, geldikinaren ehuneko zehatza erabiltzeko ahalmena duela, eta hori dela egiten dena. Idazkariak muga horiek gainditzen ez direla ikuskatzen du, eta aldaketa bakoitzean jakinarazten du.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) azaldu ez dela hainbeste geldikin erabiltzen urtero, eta hainbeste erabiltzearen arrazoia jakin nahi zuen bakarrik, ez duela zalantzan jartzen erabiltzearen beharra, baina harrituta geratu direla, aurtan asko gastatu delako.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du aldaketa garrantzitsu guztiak bilkuraren bidez egin direla, eta onesteko ekarri direla. Aurtan aldaketa garrantzitsuak egin dira, esate baterako, uholde-arriskuen azterketetarako, edo Luiaondoko erabilera anitzeko eraikinerako partida handitzeko, lehenago zein bilkura honetan, prezioak igo direlako; hainbat alderdi aldatu dira aurreko urteekin alderatuz. Bostehun mila eta zerbait euroen banakapena onesten joan diren aldaketetan dago.

Ez denez iruzkin gehiagorik egin, gaia bozkatu da, eta zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2021eko ekainaren 30eko ebazpenaren bidez “Luiaondoko erabilera anitzeko gunea moldatzea” proiektua onetsi zen, Xurxo Arauko Fernández jaunak 2021eko ekainaren 21ean idatzitakoa. Proiektuaren zenbatekoa 437.406,82 €-koa da (BEZa barne).

IKUSI DA.- Kontratua izapidetu da obra adjudikatzeko, eta 2022ko apirilaren 25ean honako hau erabaki da:

“Prozedura irekiaren bidez premiaz izapidetutako kontratazioaren espedientea hutsik deklaratzeko, “Luiaondoko La Torre kaleko 17. zenbakian dagoen erabilera anitzeko eraikina moldatzeko” obra egikaritzeko kontratua adjudikatze aldera, Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 150.3 artikulua 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz.



IKUSI DA.- 2022ko ekainaren 3an Ander Ganzedo Zulueta arkitekto jaunari zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzea onetsi zen, aipatutako proiektuaren prezioak eguneratzeko.

IKUSI DA.- Ander Ganzedo Zulueta jaunak aurkeztutako prezioak eguneratzeko proiektua. Horren bidez, proiektuaren zenbatekoa 502.035,17 € eurokoa da, gehi % 21eko BEZari dagozkion 105.427,39 €. Guztira 607.462,56 € dira.

Osoko bilkurak, zinegotziek aho batez onetsi dutela, ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Onestea “Luiaondoko erabilera anitzeko gunea moldatzeko” proiektuaren aurrekontua eguneratzeko dokumentua. Ander Ganzedo Zulueta jaunak idatzia zuen eta 2022ko uztailaren 29an ontzat eman zen. Horren bidez, proiektuaren zenbatekoa 502.035,17 € eurokoa da, gehi % 21eko BEZari dagozkion 105.427,39 €. Guztira 607.462,56 € dira.

BIGARRENA.- Erabaki hau Arabako Foru Aldundiari helaraztea, 2020-2021 Foru Planaren Programaren kargura doan dirulaguntzarekin lotutako beharrezko ondorioak izan ditzan.

6.- Bilkuraren erabakiaren proposamena, bidezkoa bada, administrazio-klausula partikularren agiriak onesteko. Helburua da Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina moldatzeko obren kontratazioa prozedura irekiaren bidez egitea.

Ondoren, Udaltzari kontu ematen zaio Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikulua bidez, alkate udalburuak, behar bezala justifikatutako premiazko arrazoiengatik, gai-zerrendan alde aurretik dagokion informazio batzordean jakinarazi ez dituen gaiak sar ditzake. Hala ere, kasu horretan, ezin izango da gaiari buruzko erabakirik hartu, Osoko Bilkurak gai-zerrendan sartzea berresten ez badu.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da. Ez da iruzkinik egin eta bozkatu da, eta aho batez onetsi da Osoko Bilkura honen gai-zerrendan sartzea.

Gaiari buruzko erabaki-proposamenaren kontu eman da.

Ez denez iruzkin gehiagorik egin, gaia bozkatu da, eta zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Espedientean jasota dagoenaren arabera, kanpoko enpresa batekin kontratua sinatzearen beharra antzeman da, “Luiaondoko erabilera anitzeko gunea moldatzea” obra egikaritzeko.

IKUSI DA.- Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 99.3 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, kontratuaren izaera dela-eta, obraren jarduketak era independentean



egiteak, ikuspuntu teknikitik, obra behar bezala egitea zailduko luke. Hortaz, ezin da loteetan banatu.

IKUSI DA.- Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean SPKL) 116.4.f) artikuluekin bat etorriz, baliabide nahikoen gabezia, loteetan banaketa ez egitea eta kontratuaren beharra egiaztatzen duten txostenak igorri dira.

IKUSI DIRA.- Lizitazioan jarriko den kontratuaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Kontratu mota: OBRA-KONTRATUA			
Kontratuaren xedea: “Luiaondoko erabilera anitzeko gunea moldatzeko” obra egikaritzea.			
Kontratazioaren prozedura: irekia		Izapidetze-mota: ohikoa	
CPV kodea: 45215200-9 Giza zerbitzuetarako eraikinak eraikitze lanak 45215222-9 Zentro zibikoak eraikitze lanak			
Kontratuaren zenbatsitako balioa, guztira: 502.035,17 € (BEZa kanpo)			
Lizitazio mota: (BEZa kanpo)	502.035,17 €	BEZa % 21:	105.427,39 €
Lizitazioaren oinarritzko tasa, BEZa barne:	607.462,56 €		
Epea: SEI HILABETE			

IKUSI DA.- Izapidetutako kontratazioaren espedientea.

IKUSI DA.- Kontratuaren ezaugarriak eta zenbatekoa, adjudikazioa prozedura irekiaren bidez egin behar da.

AINTZAT HARTU DA.- Kontratazio honek ekarriko dituen gastuei aurre egiteko kreditu nahikoa eta egokia dago 333.622.000 aurrekontu-aplikazioan.

Espedientean jasotako dokumentuak aztertu dira, Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz,

Osoko bilkurak, aho batez, ERABAKI DU:



LEHENENGOA.- Onestea kontratazioaren espedientea, **prozedura irekiaren bidezko ohiko izapideen bitartez, “Luiaondoko La Torre kaleko 17. zenbakian dagoen erabilera antzeko eraikina moldatzeko”** obra egikaritzeko kontratua adjudikatze aldera.

BIGARRENA.- Dagokion gastua onestea, 2022ko udal-aurrekontuaren **333.622.000 aurrekontu-aplikazioaren kargura**, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 502.035,17 €-koa gehi % 21ko BEZari dagozkion 105.427,39 €, bidezkoa bada, lizitazioaren gehieneko tasa guztira 607.462,56 €-koa bihurtuz.

HIRUGARRENA.- Onestea kontratua arautzeko espedientean dauden klausula ekonomiko-administratibo partikularren agiriak, **lizitazioaren deialdia**.

LAUGARRENA.- Iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea.

BOSGARRENA.- Kontratatzailearen profilean argitaratzea dagozkion derrigorrezko dokumentuak, kontratazioaren espedientea osatzen dutenak, bereziki administrazio-klausula partiluarren eta baldintza teknikoaren agiriak eta obraren proiektua. Eskaintzak aurkezteko beharrezko dokumentuak lizitazioaren iragarkia argitaratzen den egun berean egon behar dira eskuragarri.

SEIGARRENA.- Kontratazio-mahaiaren kideak izendatzea eta horren osaera kontratatzailearen profilean argitaratzea:

- Gentza Alamillo Udaeta jn., **presidentea** (Udalbatzako alkate-udalburua).
- Naiara Lazpita Marcos and., **mahaikidea** (Udalbatzako idazkari kontu-hartzailea).
- Eneritz Ferrero Ramos and., **mahaikidea** (Udalbatzako behin-behineko funtzionarioa).
- Clara Isabel Furundarena Udaeta and., **mahaikidea** (Udalbatzako funtzionarioa).
- Andoni Oguiza Lejarcegui jn., **idazkaria** (Udalbatzako funtzionarioa).

7.- Honako hauen kontu ematea: kontaketa aktak, gastu eta sarreraren egoerari buruzko balantzea, libreten egoera eta 2022ko otsail, martxo, apiril, maiatz, ekain eta uztailko kredituen aldaketak

Ez da iruzkinik egin, eta udalbatza jakinaren gainean dago.

Ondoren, alkate jaunak Udalbatzari jakinarazi dio premiazko arrazoiak direla-eta, EAJ-PNV udal-alderdiak aurkeztutako mozioa onesteko proposamena aurkeztu diola Udalbatzaren osoko bilkurari. Mozioa eukalipto-landaketak arautzeko buruzkoa da, ez dago deialdiarekin batera dagoen gai-zerrendan, Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Gaia eztabaidatu eta bozkatzeko premiaren arrazoia da EH BILDU eta AIARA BATUZ alderdiek aurkeztutako mozioa eztabaidatu dela, eta gai berari buruzkoa denez, uste da ez dela oso koherentea mozioa hurrengo osoko bilkurarako uztea.



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) gaia gai-zerrendan sartzeko premia justifikatu du, aurreko azalpenetan erabilitako arrazoiengatik.

Udalbatza, lehenik eta behin, gaia eztabaidatzea ala ez erabaki du, eta aho batez ohiko bilkura honetan eztabaidatzea erabaki da. Hortaz, puntu hau gehitu zaio gai-zerrendari:

8.- EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztutako mozioa, eukalpto-landaketak arautzeari buruzkoa.

Gentza Alamillo alkate jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du azaltzeko ez dituztela osoko bilkura honen bigarren puntuan gaiari emandako argumentu guztiak errepikatuko, hortaz, eztabaidatzeko eta bozkatzeko aurkeztu den mozioa irakurri du.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hitza hartu du azaltzeko ez duela mozioa oso ondo ulertzen, gaiari buruz informazio batzordean eztabaidatu zenean ulertu zuelako Aldundiak dagoeneko egoera aztertuta zuela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez duela berez ikerketa egotearen ebidentziarik, Eusko Jaurlaritzaren datuak daudela, baina ez Aldundiaren analisia.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) galdetu du ea zer esan nahi den honako hau esaten denean “egoera aztertzea”.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du eskatzen dela analisi juridikoa egiteko. Helburua da jakitea bideragarria den udalak eta administrazio-batzarrak luzapenari buruz erabakiak hartzen astea eta ea udal-plangintza tresnen bidez posiblea den gaiaren gaineko araudia ezartzea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du adierazteko aurkeztu den mozioa pixka bat lausoa iruditzen zaiela, ez duelako ezer zehazten. Haiiek, erantsi du, zehazki bi gauza eskatzen dituen mozioa aurkeztu dute: luzapena egiteko eta gaia arautzeko. Aurkezten den kontramozioan eskatzen da eragile guztien artean araudia egiteko, baina horrek ez du zentzurik; normalena da dagozkion eragileek araudia egitea, eta gero gainerako guztiakin alderatzea. Azkenik, gehitu du, irizpide tekniko eta zientifikoak ez direla neutroak, eta aurkezteko erabiltzen den moduaren arabera, gauza bat edo bestea diotela.

Gustatuko litzaieke mozioek gauza gehiago zehaztea. Gainera, ez daki zer esan nahi duen “baso-kudeaketa jasangarria”, nola egingo den hori, zein epeetan...

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du azaltzeko mozioak Foru Aldundiari jarduketa horiek egitera presatzen duela, ez dituela konponbideak ematen. Udalak ez ditu konponbideak emango, haien ustez eskumena Aldundiarena delakoan.

Iruzkin gehiagorik ez dagoenez, gaia bozkatu da, honako emaitza honekin:



ALDEKO BOTOAK: 7 EAJ
AURKAKO BOTOAK: 3 EH BILDU
ABSTENTZIOAK: 1 AIARA BATUZ

Hori dela bide,

IKUSI DA.- EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztutako mozioa, eukalipto-landaketak arautzeari buruzkoa.

Osoko bilkurak, udalbatzaren gehiengo osoarekin, ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Onestea EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztutako mozioa, eukalipto-landaketak arautzeari buruzkoa. Honako hau dio hitzez hitz:

